

Indarkeria matxistaren aurka antolatzekeo proposamen politikoa

ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU
ANTOLATUANTOLATUANTOLATU

itaia

Proposamen politikoa

Proposamen honen bitartez, indarkeria matxistari aurre egiteko bideorria aurkeztu nahi dugu. Emakume langileon zapalkuntzaren adierazpen gordina dugu indarkeria matxista. Gainera, ustez gero eta gizarte aurrerakoiagoan bizi bagara ere, emakumeon aurkako indarkeriak bere horretan jarraitzen du: emakume langileok zapalduak mantentzeko mekanismo izaten. Beraz, indarkeria matxistarekin amaitzea ezinbesteko premisa da emakume langileon askapena gauzatzeko. Horretarako, ordea, inolako zapalkuntzarik onartuko ez duen gizarte sozialista eraiki behar dugu eta norabide horretan ekarpena egitea dugu xede.

Emakumeok egunerokotasunean jasaten ditugu indarkeria matxistaren adierazpenak: tratu txarrak, bortxaketak, umiliazio eta presioak, jazarpena, besteak beste. Baita indarkeria matxistaren aurpegi gordinena diren erailketak ere. 2023an gutxienez 4 emakume izan dira erailak Euskal Herrian, 2003tik gutxienez 118 izan dira erailak. Eraso matxistak gauzatzen dituzten erasotzaileek emakume langileon zapaldu izaera betikotzen dute. Horrez gain, gizarte kapitalista garatzen doan heinean, indarkeria matxista amaitzetik urrun, **indarkeria forma berriak** sortu eta indartu dira. Horren adibide da, **teknologia berrien zabalpenak eta irisgarritasunak** sortu duten indarkeria birtuala eta batez ere, belaunaldi gazteenengan horrek duen eragina, indarkeria matxista normalizatzen duten sexu-eduki eta plataformetarako sarbidea erraztu baita.

Bestalde, gizartean zabaltzen ari diren **ideia erreakzionarioek indarkeria matxistaren noramalizazioa dakarte**. Instituzioetan, plataforma digitaletan zein kale mailan ideia matxista eta atzerakoiak indartu dira: emakumeon aurkako indarkeriaren ukapena, kolektibo zapalduen aurkako mezuak eta erasoak, zein emakume langileok bizi dugun zapalkuntza asmakizun ideologikoa denaren ideiarekin zabalpena. Era berean aipagarria da Espainiako Estatuan alderdi eskuindarrek gobernuko, aurrerakoi izendatutako, politika feministen aurrean harturiko jarrera erreakzionarioa. Politika horiekiko kritika ideia faxistak eta matxistak indartzeko erabili dute. Berriz ere, aipagarria eta larria da gazte sektore zabalean ideia atzerakoi horiek izaten ari diren onarpena.

Egoera jasangaitz horretan, alderdi politikoek zein **instituzioek egoerari aterabidea emateko duten ezintasuna** agerian geratu da: ez dute indarkeria matxistarekin amaitzeko bideorririk mahai gaineratzen. Matxismoaren kontrako proposamen elektoralak indarkeriaren kudeaketa hutsera mugatzen dira, egiturazko arazo sozial horrekin amaitzeko borondate eta aukera oro alboratuta. Gainera, martxan jarritako proposamenek agerian uzten dute neurri horien irisgarritasun mugatua eta horien kalitate urria. Legeen hutsuneak argiak dira, politika horien atzean alderdi instituzionalen eta bertako burokraten interes politikoak eta pertsonalak ezkututzen baitira, inondik inora ez emakume langileonak. Horren adibide dugu “soilik baietz da baietz” lege entzutetsua. Zirko mediatikoan zer esana eman bazuen ere, emakumeon bizitzetan ezer gutxi aldatu du. Errealitatean, emakumeok polizia etxeetan jazartuak izaten jarraitzen dugu, ospitaleetako protokoloek emakumeok zaurgarriago bihurtzen gaituzte, epaiketa amaigabeak jasan behar ditugu, laguntza ekonomikoak eta psikologikoak ez dira nahikoak eta berandu heltzen dira, babes pisuetan zalantzan jartzen da gure hitza, eta abar luze bat.

Aipatzekoa da, era berean, indarkeria matxistaren aurrean **emakumeok gizartetik baztertuak eta estigmatizatuak izaten jarraitzen dugula**: gu gara gure etxebizitzak utzi behar izaten ditugu-

nak, babes neurriekin itota eta intimitaterik gabe bizi behar dugunak, gu gara kalean seinalatuak garenak edota errudun sentiarazten gaituztenak. Eta horrek are zaurgarriago bihurtzen gaitu, gure bizitzekin aurrera jarraitzeko zailtasunak eta oztopoak etengabeak dira.

Gizarte kapitalistan ezin da matxismoarekin amaitu: kapitalismoak irabazi ekonomiko- politikoak areagotzeko beharrezkoa baitu subjektu zapalduak izatea, eta horrek emakumeok bigarren mailako subjektu betikotzen gaitu, gure aurkako indarkeria forma oro normalizatuz. Gainera, egoera ekonomiko eta sozial zaurgarriek gure zapalkuntza eta, zehazki, gure kontrako indarkeria muturrekoago bilakatzen dituzte, horren adibide dugu emakume etorkinen egoera, esplotazio ekonomiko eta sexual gordina jasaten baitute. Esan gabe doa kultura matxista horretatik milioika irabazi eskuratzen dituzten enpresari eta proxenetei aurre egin gabe ezin dela matxismoarekin amaitu, eta politikari profesionalek zein estatu-aparatuek ez daukatela horretarako inolako borondaterik. Horren aurrean, eraso sistematiko hauekin amaitzeko beharrezkoa da zapalkuntzan oinarrituko ez den gizarte antolaketa bat sortzea. Gaurdanik norabide horretan baldintza sozial eta politikoak eraiki behar ditugu. Horregatik, **egun indarkeria matxistaren aurrean erantzun sendoa** eman behar dugu. Horretarako, besteak beste, beharrezkoa ikusten dugu ondorengo baldintzak sortzen joatea:

1 Emakume langileon babesa antolatu behar dugu:

Indarkeria matxista jasan duen emakumeak bere bizitzarekin aurrera egiteko kalitatezko baldintzak bermatuta izan behar ditu.

- **Baldintza materialak**

Etxebizitza, elikadura, osasuna edo diru sarrerak lortzeko egon daitezkeen zailtasunen aurrean, kalitatezkoak eta doakoak izango diren bitarteko eta zerbitzuak bermatuta izan behar ditu.

- **Baldintza pertsonal eta sozialak**

Gizartearen babesa jaso eta garapen pertsonalerako bitartekoak bere eskura izan behar ditu. Horrela, biktimizazio prozesu orotik aldendu eta bere bizitzarekin aurrera egiteko baliabide pertsonalak eskura izan behar ditu, komunitatearen babesa eta erasoaren gaitzespen argia jasotzearekin batera.

2 Erasoaren aurrean erantzun behar dugu:

Eraso orenen aurrean irmotasunez eta eraginkortasunez erantzungo duen indar politikoa eraikiz.

- **Erasotzaileen inpunitatearekin amaitu**

Eraso orenen aurrean gizartearen inplikazioa eta erantzun aktiboa bermatzea ezinbestekoa da. Ezikusiarena egiteari utzi eta erasotzaileen aurrean posizionamendu soziala eta jarrera aktiboa bermatu behar dugu.

- **Indarkeria matxistaren aurkako kontzientzia**

Jendarteak indarkeria matxistaren aurkako kontzientzia izan behar du, eraso eta erasotzaile orenen aurka jarrera aktiboa izan dezan. Norma kultural matxista deseraikitzeke lan politikoa bultzatu behar da.

3 Indarkeria matxista normalizatzen duten industriak borrokatu behar ditugu:

- Emakume langileon zapalkuntza indartu eta jarrera matxistak normalizatzen dituzten industria kulturalari eta instituzioei aurre egin behar diegu. Adierazpen askatasunaren edota ahalduntze feministaren izenpean emakume langileon kontrako indarkeria zuritzen eta indartzen duten sexu- eta kultur- industriaren aurrean posizio argia mantendu behar dugu.
- Emakumeon aurkako indarkeria espektakulurako eta dirua egiteko erabiltzen duten komunikabideei aurre egin behar diegu.

4 Indarkeria matxista amaitzeko antolakuntza politikoa garatu eta indartu:

Instituzio kapitalistek auziari aterabidea emateko duten borondate ezaren aurrean, instituzio proletarioak indartzea lehentasunezko lana da. Indarkeria matxista amaitzeko aukera bakarra, instituzioetatik kanpo eraikiko den antolakuntza iraultzailea da, bere helburua zapalkuntza ororekin amaitzea izango delarik.

- Emakume langileon interesak erdietsiko ditu, eta gizarte kapitalistaren baitan zapal dutako sektoreak aktibo politiko bilakatzeko tresna izango da.
- Bere baitan ez du inolako zapalkuntzarik ezta erasorik ere onartuko; eraiki nahi dugun gizarte askearen oinarriak jarri behar baititugu.
- Proletalgoaren sektore zabalean etika komunista zabaldu behar du. Guztion errespetuan eta babesean oinarrituko den norma sozialistaren baitan heziz gizartea.
- Matxismoaren aurkako borrokarekin konprometitutako militante politikoz osatua egongo da, gaurdanik, aurretik aipaturiko lan lerroak bere egingo dituen antolakuntza politikoa osatuz.

Antolakuntza iraultzaile horren bitartez, burgesiaren eta instituzio kapitalisten manipulaziei muzin egin eta horren aurrean langileok gero eta gaitasun politiko handiagoak eskuratzea da xedea: zapalkuntzei, eta zehazki, indarkeria matxistari erantzuteko langileok gure bizitzen gaineko kontrol handiagoa izan dezagun. Bideorri hau egikaritzea ezinbestekoa izango da emakume langileon bizi baldintzak errealki hobetzeko. Hau guztia Estatu Sozialista eraikitzen bidean kokatzen dugu, zapalkuntza guztiekin eta konkretuki indarkeria matxistarekin amaitzeko bidean.